

Garaia Zentroan mikrofabrikazioko laborategi berriak inauguratu ditu M. U. -k

2007/05/24

Garaia Berrikuntza Zentroko mikrofabrikazioko laborategi berriak inauguratu ditu **Mondragon Unibertsitatearen Goi Eskola Politeknikoak**, eta horiek beren alorrean Europako ikerketaren erreferente bihurtuko dira. Laborategiek (mikrokonformaziokoak eta mikromekanizatukoak) Estatuan beste inork ez dituen ekipoak dituzte, eta horietariko bat ez du beste inork Europan. Era berean, doitasun handiko eta teknologia aurreratuko makinekin horniturik daude, eta mikrofabrikazioko prozesuen ikerketa garatzeko espezializaturik.

1,8 milioi euroko inbertsioa egin da zentroak eraikitzeko, eta horietan 120 pertsonak osaturiko bi taldek lan egingo dute fabrikazioko teknologiak ikertzen. Hona hemen laborategiei buruzko datu gehiago: 2 milioi euro baino gehiagokoa izango da urteroko aurrekontua; eta automozioaren, aeronautikaren, osasunaren eta bioteknologiaren, energiaren, etxetresna elektrikoaren, makinen eta ekipamenduetan, telekomunikazioen, eta moldeen eta matrizeen sektoreetarako egingo dute lan.

Bi laborategi horiek unibertsitatearen honako bi ikerketa-ildo estrategiko hauen jardueretan integraturik daude:

- *materialen konformaziorako prozesu aurreratuak* (alor horrek Mikrokonformazioko laborategian gartuko du jarduera)
- *errendimendu handiko mekanizazio prozesuak* (alor horrek Mikromekanizatuko Laborategian gartuko du jarduera)

Proiektuak

Gaur egun, bi talde horiek mikrofabrikazioaren alorreko proiektuetan aktiboki parte hartzen dute. Horietatik honako hauek nabarmendu genitzake: **Launchmicro proiektua** (EBko VI. esparru-programakoa) eta **Hezkuntza eta Zientzia Ministerioaren "Micromanufacturing"** proiektu garrantzitsua eta estrategikoa, azken horretan lider gisa. Gainera, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko eta Industria, Nekazaritza eta Arrantza Saileko eta Hezkuntza eta Zientzia Ministerioiko PROFIT Unibertsitate eta Enpresa programen deialdietan parte hartu dute. Proiektu horiek Mondragon Corporacion Cooperativako Zientzia eta Teknologia Planak babesturik daude.

Deformazio, galdaketa eta solidotze bidezko konformazioko teknologien bitartez, osagai metalikoak fabrikatzeko prozesuen garapena, zenbakizko modelizazioa eta karakterizazio esperimentalak dira Mikrokonformazioko Laborategiaren helburu nagusiak. Bestalde, Mikromekanizatuko laborategiak txirbilaren sortze-prozesuaren ikerketa esperimentalari, mekanizazio-prozesuen modelizazioari, material berrien mekanizagarritasunari, eta txirbil-harroketako prozesuen (hala nola, artezketaren, abiadura handiko mekanizatuaren edo mekanizatu ekologikoaren) optimizazioari buruzko ikerketak burutuko dituzte.

Arrasateko Garaia Zentroko eraikinetan egin da inaugurazioa, honako hauek buru direla: Eusko Jaurlaritzako Industria Berritzeko eta Garatzeko sailburuorde Iñaki Telletxea; Eusko Jaurlaritzako Unibertsitate eta Ikerketa sailburuorde Ibone Amezaga; Mondragon Corporacion Cooperativako lehendakari Jose María Aldekoa; **Mondragon Unibertsitateko** Errektore Iosu Zabala. Horietaz gain, Mondragon Unibertsitateko Eskola Politeknikoko lehendakari eta zuzendari, hurrenez hurren, Jose Ramon Goikoetxea eta Vicente Atxa; eta Eusko Jaurlaritzako Industri Saileko, Gipuzkoako Aldundiko Berrikuntza eta Jakintzaren Gizarteko Departamentuko, SPRIko, enpresetako eta zentro teknologikoetako ordezkariak ere izan dira



inaugurazio-ekitaldian.

Hezkuntza eta **Zientzia Ministerioari; Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari; eta Mondragon Corporacion Cooperativari** esker gauzatu ahal izan dira azpiegitura horiek.